

HEZI

Data: 2015/06/12

Bildutakoak: Oier, Irati, Maialen Gorosabel, Mireia Baz, Aloña, Nekane, Amaia L., Idoia, Miren, Beti, Aloña, Iñigo, Amaiur, Lourdes, Monse, Josu...

Saioaren nondik norakoak

1. Bakoitzak bere burua aurkeztu eta bilera honetara etortzera motibatutako zergatiak azaldu ditu.
2. HEZI-ko lan taldeak orain arte egindakoaren laburpen bat egin du:
 - a. Egitasmoaren oinarriak zehaztu dira. Aipatutakoak, abiapuntua besterik ez dira, denbora aurrera egin ahala hauek moldatzen edo berriak gehitzen joango direlarik:

✓ Hartzaroaren kultura eta jolasaren ezinbestekotasuna

Hartzaroaren kulturaz hitz egiteak, zera onartzea dakar: hurrek euren modua dutela mundua **ikusteko eta gauzei zentzua** emateko. Hartzaroaren **gaitasunak eta ahalmenak** aintzat hartu behar ditugu eta ezin dizkiegu trabak jarri hauek garatzerako orduan.

✓ Herrigintza eta komunitatea

Parte-hartzea haur eta gaztetxoak **antolatzeko tresna** baino ez da funtsean; Euskal Herrian bereziki **auzolanaren** bidez baina baita beste antolaera batzuen bidez ere berezko izan dugun zerbait.

Partaidetza-ekimen batek bi subjektoren **elkarlana** eskatzen du: **herrigintzako eragileena** eta **herri-erakundeena**. Nolabait erakunde publikoak ere herrigintza behar dutela izan, eta herritarrak ere administrazioaren parte behar dutela izan. Azken axioma hau praktikan jartzearekin etorriko da benetako partaidetza eta benetako herrigintza.

Ez dugu legitimaziorako parte-hartzerik nahi, haur eta gaztetxo, eraldaketaren alde lan egingo duen herritarren parte-hartzea baizik.

Adibidez; Herriko taldeak eta herritarrak inplikatu; Elkarlana estutu ikastetxearekin

✓ Ingurumen naturala eta kulturala

Gure ingurumen naturala eta kulturala **ezagutzea, zaintzea eta lantzea** garrantzitsua da. Herria handitzen joan den heinean **haurra eta naturaren arteko harremana txikitzen** joan da, honek ekarri dituen ondorioekin: gizentasuna, estresa, hiperaktibitatea ...

Naturarekin bezala, **hizkuntza eta kulturen arteko erlazioa** ere zaindu behar da. Hizkuntza eta kultura guztiak **maitatuz eta balioa emanez**, bereziki gutxiegitasun mailan daudenak; eta horiei laguntzeko gure modua **euskara erdigunean** jartzea eta etorkizun bat eskaintzea da.

✓ **Aniztasunean berdin eta parekide**

Komunitategintza egiteko **lehen oinarria aniztasuna onartzea** da. Denok gara askotarikoak, denok gara banako eta bakar, denok gara gaitasundun eta eskubidedun, haurrak ere bai. Baina denok **aukera-berdintasuna** izanda eta **berdintasun mailatik** abiatuta baino ezin da aniztasuna bermatu eta azaleratu.

Berdintasuna erreala izango bada ahulena jarri behar da erdigunean: umea eta euskara, gure kasuan. Eta horien atzetik sartuko dira gainerako pertsonak eta gainerako hizkuntzak.

✓ **Euskara eta euskal kultura**

Euskarara biltzeak **ez du eskatzen beste hizkuntzak galtzea**, kontrakoa baizik: hizkuntza txikiaren alde egiten den oro hizkuntza guztien aldekoa da. Ez horrela hizkuntza hegemonikoen alde egiten dena.

Euskara, berez, **balio bat** da bere baitan, **balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia** delako. Euskarak berak ekar dezakeelako gure ahoz eta gure praktikaz komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat.

Sarritan **euskara eskolaren derrigortasunarekin** lotzen da, eta **aisia** eremu askea **erdare** izaten zaie, euskarak berez derrigortasuna eta sufrimendua ekarriko balu bezala, eta ez poza eta dibertimendua.

✓ **Aisia hezitzailea**

Haur eta gaztetxoentzako aisiak, eta berdin helduentzakoak ere, **balio hezitzaileak** ekarri behar ditu berekin, bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere.

Aisialdiak, hezitzailea izateko, beharrezkoa du jarduera garatzen den lekuaren errealitatearen beharrei erantzutea. Tokian tokikoa izatea. Bertakoek eta bertarako diseinatua.

✓ **Haurren parte hartzea**

Haurren benetako parte-hartzea. **Ekintza puntual** bat edo aparteko ekintza puntual bat izateari **utzi** behar dio, eta gizartea eraikitzeko_eta bere identitatea definitzeko **tresna** dela ulertu behar dugu.

Haurren benetako parte-hartzea sustatzeko, ez da nahikoa izango soilik haurren eskubideak aldarrikatzea: ezinbestekoa izango da parte-hartzea bera **praktikara** eramatea.

Adibidez; Haurtzaroa udal politiken zeharkako gaia bihurtu.

- b. Eragile eta norbanakoei egitasmoa azaldu zaie, ekainak 5eko aurkezpena gonbidapena luzatzeko.
 - c. Ekainak 5ean egitasmoa azaldu da, egitasmoak HERRIOLAREN barruan non kokatzen den eta nola antolatuko den azaltzeko.
3. Ondoren ekintzak proposatzeko tartea egon da. Horretarako post-it-ak banatu dira eta bertan idatzitakoak gaiaren arabera eta gauzatzeko epearen arabera antolatzen ahalegindu gara.

Aisialdia



HELBURUA→Otxandioko oraingo aisialdi ereduaz aztertu eta honen inguruan hausnartu.

→Herrian dauden eskolaz kanpoko ekintzak identifikatu eta hauek koordinatzen/bateratzen ahalegindu.

→Belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatu.

→Jolas tokien eraldaketa, haurren ikuspegitik bultzatu

→Haurtzaroko ekintzak(antzerkiak, ipuinak)

→Aisialdi hezitzailea! Balio hezitzaielak behar bezala indartuz!

→0-3 /10-14 urte bitartekoen beharrak identifikatu eta beraientzako ekintzak antolatu.

→Mendi irteeretan nerabeak ez dira egoten.

→Ludoteka zerbitzuaren beharra aztertu.

→Ludotekako egitasmoa herrira azaldu eta bertan bultzatzen den familien parte hartzea azpimarratu.

ELKARBIZITZA

→Kulturaren transmisioa

→Genero berdintasuna landu

→Zaborran kudeaketaren inguruko hausnarketa bultzatu. (Helduetatik abiatuz)

->Errespetuzko harremanak sustatu

->Udal zerbitzuak errespetatu

KIROL EREDUA

->Helburua: Momentu hoentan dagoen kirol ereduaren inguruan hausnarketa bat egin.

->Balio hezitzaileak bultzatu

->Multi- kirola indartu!

->Futbola ez-ezik beste kirol mota batzuk bultzatu.



ESPAZIOAK (Hiri antolamendua)

->Hotz egiten duenean, haurrak jolasteko guneak behar dira

->Musika eskola/kultur etxe bat behar da.

->Gaztetxoko baten beharra ikusi da.

CURRICULUM LOKALA

->Helburua: Herri curriculum osatu

MUGIKORTASUNA/ IRISGARRITASUNA

Haurren begietatik eraikitzen eta antolatzen den herria herritar denen beharrak asetzen dituen herria izango da. (TONNUCCI)

Beraz herriaren antolaketa, haurren begietatik aztertu.

EKINTZA ZEHATZAK

->Herriko jaiak hurrekin batera antolatu (Balio hezitzaileak bermatzen dituzten ekintzak azpimarratuz)

FORMAKUNTZA/HITZALDIAK


->Ezin gara geratu "Ez gara hain txarto atera" ideiarekin.

->Herritarrak haien izaera hezitzaileaz kontzientziatu

->Ekintzetan hasi aurretik oinarri pedagogikoak eta beste esperientzia batzuk jaso.



LAN TALDEAK



Irakurgaiak eta bideo interesgarriak:

→Haurren Hiri

→Herri hezitzailea eskola herritarrak argitaratutako liburuxkak

→<https://www.youtube.com/watch?v=zkJgt80DUwU>

